

▼ Atearen bestaldean



Iratxe Unanue

■ **Ikasketak:** Arte Ederrak.
Alorra: Pintura, grabatua eta xilografia lantzen ditu.

■ **Joerak:** Oraindik bere estiloa lantzen diharduela dio. «Ama margolaria izanik, txikitatik izan dut mundu honetan aritzeko joera. Errealitatea islatu nahi izaten dut».


▼ Zu eta ni



Gorka Aizpurua

■ **Ikasketak:** Arte Ederrak.
■ **Alorrek:** Diseinu grafikoa ikasi zuen, baina egun hainbat alor lantzen ditu, pintura, eskultura eta ikus-entzunezkoak batik bat.
■ **Gustuko dituen artistak:** Mariscal, Miro, Picasso eta besteak beste.

▼ Titulorik gabe



Susana Lopez

■ **Ikasketak:** Diseinu Grafikoa, Donostian.
■ **Alorra:** argazkilaritza.
■ **Teknikak:** zuri-betzean lan egiten du, eta teknika tradizionalak erabiltzen ditu batez ere. Azken aldian sepiaren erabilera jorratu du batez ere.

■ **Joerak:** paisaia eta pertsona, nahastuta, lantzen ditu. Joera surrealista baduela dio.
■ **Gustuko argazkilaria:** Avenon moda argazkilaria. «Paisaietan pertsonak jartzen ditu, baina pertsona horiek lekurik ez duten paisaietan. Surrealista da oso», dio Susanak.

▼ Aipatu lana erakuslelhoan jarri zuen ikusgai. Lanaren adibidea soilik da ondokoa.

ainara_g_99@yahoo.com
oihana_99@yahoo.com
leire_a_99@yahoo.com
gorka_a_99@yahoo.com
jon_e_99@yahoo.com
nerea_i_99@yahoo.com
maite_l_99@yahoo.com
susana_l_99@yahoo.com
iratxe_u_99@yahoo.com
lorena_i_99@yahoo.com

Leire Alberdi

■ **Ikasketak:** Arte Ederrak.
■ **Joerak:** «Ez diot jarraitzen inolako joera edo artista bereziri. Inguruan daukadana neregatzen dut». Ikus-entzunezkoen espezialitatea dihardu ikasten, baina joera guztiak bateratzen ditu.
■ **Teknikak:** Argazkilaritza, bideoa, ordenadorearekin eginiko moldaketak, hainbat material eta bide bateratuz lan bakoitzean. Irudiaren alde plastikoa lantzen du.

Erromanikoa, Gotikoa, Picasso eta Dali soilik dira artea. Eta kito. Orduan, erakuslelho batean dagoen artelan bat edo kalean lanean ari den *performance* baten lana ez daki jende askok estimatzen. Ez daki sorkuntza lan horiek noiztik egiten diren eta zergatik egiten diren, eta orduan ez da kapaza hura estimatzeko», gaineratu du Leirek. Oihanak zera esan du: «Margolan bat lurtean ikusten baduzu, akaso zapaldu egingo duzu. Gero margolan bera koadro batean sartu, izena ondoan jarri eta artea da», kexatu da Ainara.

Ainara Garcia

■ **Ikasketak:** Arte Ederrak. [Ikusentzunezkoak]
■ **Joerak:** Artea egiteko egitura sozialez baliatzen da. «Arteak gainditu egiten ditu espezialitateak, eta proiektu bakoitzean alor batzuk edo besteak landu beharko dira», dio.
■ **Helburuak:** Publikoarekiko interakzioa lortzea, bai fisikoa, bai mediatikoa.

Interes kontua ere izango da, akaso. «Ulertu edo gustatu? Gutxieneke interes bat izatea da kaxoa», diote. Erantzuna erakusketara heldu den gizon batek eman du. «Ez da gure garaiko lana, baina niri gustatzen zait. Gustatu ala ulertu? Beno, nik uste lehendabizi gustatu egin behar zaizula, eta lana heltzen bazaizu edo bereganatu egiten baduzu, gero ulertzeko ahaleginak egiten dituzu. Angulak 80.000 pezeta balio dute (3.200 libera inguru), baina gustatzen ez bazaizkizu, zertarako erosiko dituzu? Gustatuz gero, baina,

rekin antzeko zerbait gertatzen dela uste dut», esan du gizon horrek. Orain gazteek hartu dute lekukoa.

Artearen joerak aldatuz

Gizartean moduan, artean ere aldatuz doaz joerak. Orain material gehiago erabili eta nahasten direla esan dute artista gazteek. «Ez soilik material fisikoak, material inmaterialak ere erabiltzen dira egun artea egiteko: Internet, posta elektronikoa... gauza horiek guztiak. Egungo komunikatzeko medioak ere erabiltzen dira, azken finean artearen helburua komunikatzea da. Beharbada, ez da betiko eskultura bat izango medio horiekin egiten duzuna, baina bai egitura sozial bat», azaldu du Ainara Garciak.

Egun guztia oso bizkor aldatu eta garatzen dela diote, eta artea ere hala ari da garatzen. «Denbora guztian berritzen eta gauzak egiten ari gara, baina jarraitua da. Beti berritzen eta berritzen». Diotenez, gero eta bizkorrago ari da garatzen eta egungo artistak berdin ari dira lanean: «Egungo dinamikaren sartuta gaudelako, akaso».

Oraingo izen handirik ez badute ere ez zaie iritzirik falta. Hurrengo arte joeren lekukoa dute eskuetan. Arteak badu jarraipenik.



▼ Titulorik gabe



▼ Titulorik gabe

Nerea Ibarbia

■ **Ikasketak:** Irakasletza, Eskoriatzako eskolan. Heziketa berezia da bere espezialitatea.
■ **Alorra:** pintura.
■ **Joerak:** erakusketan jarri dituen pintura guztiak Klimt margolariaren bertsioak dira. Oraingo zaletasuna baina ez da neska honek margorako duena, eta hainbat urtetan, txiki-txikitatik, pintura ikastaroak jasotzen aritu da.

Konbentzioen oztoppo edo arazoa hezkuntza kontua ere badela deritza Leirek. «Beti uste izan dut hutsune bat dagoela hezkuntza arloan. Arte Ederrak ikasten hasi arte, ez dakizu artea existitzen denik; ordura arte arte



▼ Titulorik gabe

«Artea eta eguneroko bizitza lotzea, azken finean», gehitu du Oihanak.

Konbentzioen aurka

Artearen ikuspuntua aldatu dela badiote ere, kexu dira, egun askok testuinguru jakin batzuetan soilik ikusten baitu artea. «Joerak aldatu diren arren, marko baten barruan baldin badago bakarrik ezagutzen du jende askok artea. Nik aurkeztu dudana, esaterako, jendeak ez du uste lan bat denik», esan du Ainarak. Berak kalera begira dagoen erakusketako erakuslelho bat erabili du bere lana sortzeko. Helbide elektronikoak ikus daitezke bertan.

Artea bizibide

Artetik eguneroko ogia lor daitekeen galdetu diegu artista gazteri. Orokorrean ezetz diote. «Dirua behar da edozer aurrera eramateko, eta zaila da hori», da gehien erantzuna. Bestalde, Iratxe Unanuek dio ez dakiela artista izatek bizi nahi duen. «Nire amak hori nahi zuen, eta astiro-astiro lortu du hortik bizitzea. Baita nire anaiak ere. Baina haiek nahi zutena lortzeko gogor lan egin behar izan dute, eta bizi dutena ikusi eta gero ez dakit hortik igaro nahi dudana», dio zalantzati. «Hortik bakarrik ezin daiteke bizi, dirua behar baita. Aurrekontu bat behar duzu, eta horretarako asko-asko mugitu behar duzu», esan du Ainarak. Leire ere iritzi berekoa da: «Edozein lanek inbertsio bat dute, gero jasotzen ez duzun inbertsio bat». Norberaren kabuz ibili beharrean badagoela beste aukera bat diote: galeriak. Berriz ere eztabaida sortu da horrekin. Leirek dio ez duela bakoitzak bere lana kontrolatzen galerien munduan sartuz gero, «gainera, aurretik kritikatu dugun inguru elitista horretan sartuko ginatke, eta oraingo nik ez dut hori nahi». Galerien bidea erabiliz zure bidea egiteko aukera badagoela diote Ainarak eta Oihanak. «Hori erabili eta beste bide batzuk joratzeko aukera badago. Kontaktuak egitea ez da txarra, gero hortik lortutako diruarekin zure bidea joratzeko aukera izan dezakezu», diote Ainarak eta Oihanak. Haien etorkizunaz galdezkerakoan zera erantzun du gazteetako batek: «Momentu bakoitzak erakutsiko digu nondik nora jo».